ORIO marea bizian — ORIOKO UDALA

# 2023an herriko festetan lurzoru publikoa tiobiboekin okupatzeko baimenak emateko prozedura arautzen duen baldintza-plegua

## 1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da 2023. urtean tiobiboekin lurzoru publikoaren okupazioa egiteko baimenak ematea.

Zehazki:

1.- San Pedro jaietan, Ikastola ondoko plazoletan. 2023ko ekainaren 23tik uztailaren 2ra. (Instalazio aldia: 2023ko ekainaren 21etik uztailaren 3a arte.)

2.- San Nikolas jaietan, Ikastola ondoko plazoletan. 2023ko abenduaren 1etik 10era. (Instalazio aldia: 2023ko azaroaren 29tik abenduaren 11 arte.)

** Aldi horiek egokitu ahal izango dira, bere garaian irizpide orokorretara egokitzeko.*

## 2. Eskaerak

Aipatutako jarduerarako legezko baldintzak betetzen dituzten enpresek edo jarduteko gaitasun juridikodun pertsonek egin ditzakete eskaerak.

Eskaera idatziz aurkeztuko da, inprimakia beteta, **udaleko bulego elektronikoan.**

Eskaerak aurkezteko epeak hauek izango dira:

- San Pedro jaiak: **2023ko ekainaren 2ko arratsaldeko 14:30ak** baino lehen.
- San Nikolas jaiak: **2023ko azaroaren 3ko arratsaldeko 14:30ak** baino lehen.

Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira, nahitaez:

- Atrakzioaren titularraren NAN kopia.
- Gizarte Segurantzan autonomoen erregimenean altan dagoela eta azken hilabetea ordaindu duela egiaztatzen duen agiria.
- Ogasuneko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzen duen agiria.
- Erantzukizun zibileko poliza, atrakzioen kasuan gutxienez 300.000,00 euroko mugarekin eta kaseten kasuan gutxienez 150.000,00 euroko mugarekin, eta horren ordainketaren agiria.
- Ekonomia Jardueren Zergan altan dagoela egiaztatzen duen agiria.
- Atrakzio mekanikoaren egiaztapenaren eta probaren urteko ziurtagiria, industria-ingeniari kolegiatu batek sinatua.

Eskaera bakoitzeko atrakzio bakarra aurkeztu ahal izango da.

## 3. Adjudikazio-hartzaileen betebeharrak

Adjudikazio-hartzaile edo baimendunaren betebeharrak:

1.- Baimendutako interesdunak egiaztatu behar du bete beharreko baldintzak betetzen dituela, eta horien agiriak aurkeztu beharko ditu **udaleko bulego elektronikoan**; zehazki:

- Aldi baterako instalazio elektrikoaren buletina edo ziurtagiria.

- Iberdrolarekin kontratatutako argi-ornidurararen kontratuaren kopia.

- Dagozkion tasak ordaindu izanaren agiria.
- Atrakzioa muntatu ostean, ikuskapen teknikoaren agiria dagokion teknikari gaituak eta kolegiatuak egindakoa eta sinatutakoa.

Agiri hauek aurkeztu ezean, baimendutako interesdunak ezingo du atrakzioa martxan jarri.

2.- Jarduerak eragin ditzakeen kalteen erantzulea baimendutakoa izango da, eta udalak ere jarduera horren aurrean hirugarren baten izaera izango du.

3.- Honako baldintzak ere bete behar ditu:

- Iberdrolarekin kontratatu beharko dute argindarra, eta debekatuta dago udal saretik hartzea. Dagokion buletina egin beharko da instalatzaile ofizial baten bitartez eta instalatzaile ofizialak egin beharko ditu lotura guztiak. Iberdrolarekin argindarra hornitzeko kontratua sinatu beharko da eta hornidura eskatzailearen kontura izango da.
- Atrakzioak jartzeko ezingo da lurra zulatu.
- Erreklamazio-orriak izan beharko dituzte eta horren berri ikusgai jarri.
- Musika bakarra izango da atrakzio-esparru osoan, Udalak jarritako gailuaren bidez. Denbora eta bolumena mugatuko ditu, zaraten arloan indarrean dagoen araudiaren arabera. Jarritako musikaren %50a gutxienez euskaraz izango da.
- Tiobiboa martxan izateko ordutegiari dagokionean, zabalik izango dute goizeko 11:00etatik gaueko 01:00ak arte (gaueko 00:00etatik aurrera musika itzali beharko da). Ordutegi hau ez errespetatzeak okupazio baimena galtzea ekarriko du eta atrakzioa desmuntatu egin beharko da.
- Jarriko den atrakzioak ezingo du baimendutako azalera gainditu, ezta ere udalak ezarritako eremutik kanpo egon.
- Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal-ordenantzaren 41. artikuluko 1. puntuari jarraiki: festetako barraketako idatzi, iragarki eta txartelak euskaraz emango dira.
- Atrakzioaren prezioa bidaiako gehienez **2 euro** izango da, eta 6 bidaiaren abonua gehienez 10 euro, eta bidaia bakoitzaren gutxieneko iraupena 2 minutukoa.
- Ingurua garbi mantendu beharko du egunero eta okupatutako eremua ere garbi utzi beharko du alde egiten duenean.

## 4. <u>Adjudikazioa</u>

Atrakzio motaren, ezaugarrien eta dagoen espazioaren arabera udalak adjudikatuko ditu atrakzioak, honako irizpide hauek kontutan harturik:

Atrakzioak jartzeko eremuak eta bertan bermatuko diren atrakzioak hauek izango dira:

- San Pedro jaietan: ikastola ondoko plazoletan
  - autotxoke pista 1 (gehienez 22 x 12m)
  - ohe elastiko 1 (gehienez 12 x 8 m)
  - tirozko jokoak 2 (gehienez 8 x 3 m)

   - atrakzio mekaniko handiak 1 (gehienez 14 x 14 m)
   - atrakzio mekaniko txikiak 1 (gehienez 6 x 6 m)
   - zaldiko maldikoak 1 (gehienez 7 x 7 m)
   - gozokiak saltzeko postu 1 (gehienez 5 x 2 m)
- San Nikolas jaietan: ikastola ondoko plazoletan eta abeslari kalean (oinezkoen eremua).
   - autotxoke pista 1 (gehienez 22 x 12m)
   - ohe elastiko 1 (gehienez 12 x 8 m)
   - tirozko jokoak 3 (gehienez 8 x 3 m)
   - atrakzio mekaniko handiak 2 (gehienez 14 x 14 m)
   - atrakzio mekaniko txikiak 1 (gehienez 6 x 6 m)
   - zaldiko maldikoak edo antzekoak 1 (gehienez 7 x 7 m)
   - gozokiak saltzeko postu 1 (gehienez 5 x 2 m)

Bermatutako atrakzio edo tiobibo antzekoak aurkeztuz gero, adjudikazioa egiteko honako puntuazio hau erabiliko da (gehienez 51 ptu):

a) Antzinatasuna (5 ptu. urte bakoitzeko): gehienez 25 ptu.
b) Berritasuna (lehenagotik instalatu gabeko atrakzio berriak): 15 ptu.
c) Aurrekariak (Orioko udalarekin kontrako txostenik, zergarik edota isunik ez izatea): 11 ptu.
d) Puntuazioetan berdintasuna egoten bada, berdinduen arteko zozketa bidez adjudikatuko da.

Jardueran jardungo dute baimena dutenek eta haiekin familia- edo lan-harremana dutenek, eta horren berri aurretik eman beharko dute.

## 5. <u>Udalaren betebeharrak</u>

Udalak aurretik finkatutako guneak gordeko dizkie, eta udalaren baimenik ez duen beste inork ez duela jardungo bermatuko die.

## 6. <u>Ustiatzeko eskubidea</u>

Adjudikazio-hartzaileak ezin izango du okupaziorako baimena edo eskubidea beste edozeini laga edo saldu.

Interesik ez balu, gutxienez 5 lanegun lehenago Orioko Udalari idatziz jakinarazi beharko dio, eta jasotako puntuazioaren arabera hurrengoari eskainiko zaio.

## 7. <u>Etxebizitza mugikorrak</u>

Tiobiboak irauten duten epealdian karabana, autokarabana edo etxebizitza mugikor bidez lo egin nahi duten baimendutako guztiek honela egin beharko dute:

- Karabanak edo autokarabanak udalak horretarako ezarritako puntuan jarriko dira, autobide azpian dagoen autokarabanen area izenekoan (ikus planoa).
- Ur beltzak eta grisak horretarako prestatutako puntuetan utziko dira.

- Argindarra udalak espreski instalatutako puntuetatik eta adierazitako moduan hartu beharko dute. Argindar kontsumoagatik **eguneko 12 euro** ordaindu beharko diote Udalari.
- Atrakzio bakoitzeko 2 etxebizitza mugikor bakarrik baimenduko dira.

Baldintza hauek ez betetzeak, baimena ezeztatzea eta atrakzioa desmuntatzea ekarriko du.

**PLIEGO DE CONDICIONES QUE REGULA EL PROCEDIMIENTO PARA LA CONCESIÓN DE AUTORIZACIONES DE OCUPACIÓN DE SUELO PÚBLICO CON TIOVIVOS DURANTE LAS FIESTAS PATRONALES DEL AÑO 2023**

## 1. Objeto de la convocatoria

Es objeto de la presente convocatoria la concesión de autorizaciones para la ocupación de suelo público con tiovivos durante el año 2023.

En concreto:

1. Fiestas de San Pedro, en la plazoleta junto a la Ikastola. Del 23 de junio al 2 de julio de 2023. (Período de instalación: del 21 de junio al 3 de julio de 2023).

2. Fiestas de San Nicolás, en la plazoleta junto a la Ikastola. Del 1 al 10 de diciembre de 2023. (Período de instalación: del 29 de noviembre al 11 de diciembre de 2023.)

* Estos períodos podrán ser adaptados en su momento a los criterios generales.

## 2. Solicitudes

Las solicitudes podrán ser formuladas por empresas o personas con capacidad jurídica de obrar que reúnan los requisitos legales para el ejercicio de la actividad referida.

**La solicitud se presentará por escrito, en impreso normalizado, en la oficina electrónica del Ayuntamiento.**

**Los plazos de presentación de solicitudes** serán los siguientes:

- Fiestas de San Pedro: antes de las 14:30 horas del **día 2 de junio de 2023.**
- Fiestas de San Nicolás: antes de las 14:30 horas del **día 3 de noviembre de 2023.**

La solicitud deberá ir acompañada necesariamente de la siguiente documentación:

- Copia del DNI del titular del atraque.
- Certificado de estar de alta en la Seguridad Social en el régimen de autónomos y haber abonado el último mes.
- Documento acreditativo de estar al corriente de las obligaciones de Hacienda.
- Póliza de responsabilidad civil con un límite mínimo de 300.000,00 euros en el caso de atracciones y un límite mínimo de 150.000,00 euros en el caso de casetas y justificante de su pago.
- Documento acreditativo de estar de alta en el Impuesto de Actividades Económicas.
- Certificado anual de verificación y prueba de tracción mecánica suscrito por un ingeniero industrial colegiado.

Sólo se podrá presentar una atracción por solicitud.

## 3. Obligaciones de los adjudicatarios

Obligaciones del adjudicatario o autorizado:

1.- El interesado autorizado deberá acreditar el cumplimiento de los requisitos exigidos, debiendo presentar la documentación correspondiente en la **oficina electrónica del Ayuntamiento, en concreto:**

- Boletín o certificado de instalación eléctrica temporal.
- Copia del contrato de luminaria con Iberdrola.
- Justificante del pago de las tasas correspondientes.
- Una vez montada la atracción, documento de inspección técnica emitido y firmado por el técnico competente y colegiado correspondiente.

En caso de no presentar estos documentos, el interesado autorizado no podrá iniciar la atracción.

2.- El responsable de los daños que pueda causar la actividad será el autorizado, teniendo el Ayuntamiento la condición de tercero frente a la misma.

3.- Deberá cumplir además los siguientes requisitos:

- Deberán contratar la energía eléctrica con Iberdrola, quedando prohibida la captación de la red municipal. Se deberá elaborar el boletín correspondiente a través de un instalador oficial y todos los enlaces deberán ser realizados por el instalador oficial. Deberá firmar con Iberdrola el contrato de suministro de energía eléctrica que correrá a cargo del solicitante.
- Las atracciones no podrán ser perforadas en el suelo.
- Contener las hojas de reclamaciones y hacerlas públicas.
- La música será única en todo el recinto de atracciones a través del dispositivo instalado por el ayuntamiento que se limitará el tiempo y el volumen de acuerdo con la normativa vigente en materia de ruidos. Al menos el 50% de la música será en euskera.
- En cuanto al horario de funcionamiento del tiovivo, el mismo estará abierto de 11:00 a 01:00 horas (a partir de las 00:00 horas habrá que apagar la música). El incumplimiento de este horario dará lugar a la pérdida de la licencia de ocupación y al desmontaje de la atracción.
- La atracción a ubicar no podrá exceder de la superficie autorizada, ni estar fuera de la zona establecida por el Ayuntamiento.
- Según el punto 1 del artículo 41 de la Ordenanza Municipal para la Normalización del Uso del Euskera: los escritos, anuncios y papeletas de las fiestas se emitirán en euskera.
- **El precio** de la atracción **será como máximo de 2 euros** por viaje, con un máximo de abono de 6 viajes de 10 euros y una duración mínima por viaje de 2 minutos.
- Deberá mantener el entorno limpio todos los días y la zona ocupada en el momento de abandonar.

## 4. Adjudicación

Las atracciones serán adjudicadas por el Ayuntamiento en función del tipo de atracción, características y espacio disponible, teniendo en cuenta los siguientes criterios:

Las zonas de ubicación de las atracciones y las atracciones que se garantizarán como máximo en ellas serán las siguientes:

- Fiestas de San Pedro: plazoleta junto a la ikastola
    - 1 pista de autos de choque (máx. 22 x 12m)
    - 1 de camas elásticas (máx. 12 x 8 m)
    - 2 juegos de tiro (máx. 8 x 3 m)
    - 1 atracción mecánica grande (máx. 14 x 14 m)
    - 1 atracción mecánica pequeña (máx. 6 x 6 m)
    - 1 de caballitos o similar (máx. 7 x 7 m)
    - 1 puesto de venta de caramelos (máx. 5 x 2 m)

- Fiestas de San Nicolás: plazoleta junto a la ikastola y calle Abeslari (zona peatonal).
    - 1 pista de autos de choque (máx. 22 x 12m)
    - 1 cama elástica (máx. 12 x 8 m)
    - 3 juegos de tiro (máx. 8 x 3 m)
    - 2 atracciones mecánicas grandes (máx. 14 x 14 m)
    - 1 atracciones mecánicas pequeñas(máx. 6 x 6 m)
    - 1 de caballitos o similar (máx. 7 x 7 m)
    - 1 puesto de venta de caramelos (máx. 5 x 2 m)

En el caso de presentar atracciones o tiovivos similares garantizados, la adjudicación se realizará con la siguiente puntuación (máximo 51 puntos):

a) Antigüedad (5 ptos. por cada año): hasta 25 puntos.

b) Novedad (nuevas atracciones no instaladas anteriormente): 15 Ptos.

c) Antecedentes (ausencia de informes desfavorables, deudas o multas con el Ayuntamiento de Orio): 11 Ptos.

d) En caso de igualdad en las puntuaciones, se adjudicará por sorteo entre los empatados.

El ejercicio de la actividad se realizará por las personas autorizadas y por quienes tengan relación familiar o laboral con las mismas, debiendo comunicarlo previamente.

## 5. Obligaciones del Ayuntamiento

El Ayuntamiento conservará los espacios prefijados, garantizando su actuación a terceros sin autorización municipal.

## 6. Derecho de explotación

El adjudicatario no podrá ceder o vender el permiso o derecho de ocupación a terceros.

Si no estuviese interesado, deberá comunicarlo por escrito al Ayuntamiento de Orio con una antelación mínima de 5 días hábiles y se le ofertará al siguiente en función de la puntuación obtenida.

## 7. Viviendas móviles

Todos los autorizados que deseen pernoctar en caravana, autocaravana o vivienda móvil durante el período de vigencia de los tiovibos, deberán:

- Las caravanas o autocaravanas se situarán en el punto establecido al efecto por el Ayuntamiento, en la denominada área de autocaravanas situada bajo la autopista (ver plano).
- Las aguas negras y grises se depositarán en los puntos habilitados para ello.
- La acometida eléctrica deberá realizarse desde los puntos expresamente instalados por el Ayuntamiento y en la forma indicada. Deberán abonar al Ayuntamiento la **cantidad de 12 euros** diarios en concepto de consumo eléctrico.
- Se autorizan únicamente 2 viviendas móviles por atracción.

El incumplimiento de estas condiciones determinará la revocación de la autorización y el desmontaje de la atracción.